



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAk bi espediente ireki ditu Gipuzkoako autoeskola batzuen aurka, ustez prezioak adosteagatik

Herritar batek salatu ondoren, Errenteriako eta Arrasate-Mondragoneko autoeskolak interes orokorraren aurka prezioak ustez adostu izanaren zantzuak aurkitu dira

Bilbo, 2017ko apirilaren 20a

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) bi espediente ireki ditu Gipuzkoako bi udalerrietako autoeskola batzuen aurka, lehiaren aurkako jokabideak ustez egiteagatik. Jokabide horiek B motako gida-baimena lortzeari buruzkoak dira eta Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua ezarritakoaren bi arau-hauste izango lirateke.

Espedientatutako autoeskolak hauexek dira: Autoescuela Lagunak, Bidebieta Autoeskola, Oiartzun Autoeskola SL, Sarriegui Autoeskola, Arrasate Autoeskola, Leniz Autoeskola, Peñakoba Autoeskola SL eta Telleria Autoeskola.

Kartelak ikertzea LEAren jardueraren lehentasunetariko bat da, kontsumitzaileengan eta merkatuen funtzionamendu egokian duen eragin larriagatik.

Jokabide horien aurka borrokatzearen, LEAk badauka, besteak beste, Errukitasun Programa. Horren bidez, kartel baten partaideak diren enpresak isuna ordaintzetik salbuetsi ahal dira LEAri ematen badizkiote kartelak deuseztatu eta zehatzeko frogabideak.

Zehapen-espediente bat hasteak ez du esan nahi amaiera dagoeneko erabakita dagoela. Hasiera-datatik 18 hilabeteko epea dago espedientearen instrukzioa egin eta ebazteko, izapidetzean gerta daitezkeen epearen eteteak kontuan hartzeari utzi gabe.

[Lehiaren Euskal Agintaritza. Irekitako prozedurak](#)

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.